

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 igo dira 2024ko irailean


Aurreko hilaren, 2024ko abuztuaren, aldean, salmentak % 0,4 igo dira

Eustatek landutako datuen arabera, 2024ko irailean, prezio konstanteetan, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 1,0 igo dira aurreko urteko hil beraren aldean.

2024ko abuztuarekin alderatuta, prezio konstanteetako salmentak % 0,4 igo dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

Salmentak, prezio konstanteetan, % 0,4 jaitsi dira *Elikaduraren* sektorean hilabete artean, eta % 1,9 igo dira *Gainerako produktuetan*. Urte artean, 2024ko irailean, eta 2023ko irailarekin alderatuta, salmentak % 0,9 jaitsi dira *Elikaduran* eta % 4,7 igo dira *Gainerako produktuetan*.

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea. Urte arteko eta hilabete arteko aldakuntza-tasak (p). Iraila 2024

	Prezio finkoak		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	1,0	0,4	0,0
Araba/Álava	0,8	0,3	-0,2
Bizkaia	1,9	0,7	-0,2
Gipuzkoa	-0,5	-0,1	0,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Janariak	-0,9	-0,4	0,4
Gainerako produktuak	4,7	1,9	-0,8
ENPLEGU-INDIZEA			
Euskal AE	0,7	-0,6	1,3

(p)Behinbehineko datuak

m / m-12 Urteen arteko aldakuntza. Egutegi eraginak zuzendutako datuak

m / m-1 Hilabeteen arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtarriletik hil korrientera arte metatutako aldiaren urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko aldi metatu beraren aldean

Data 2024ko Urriaren 28a

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan (AHEK)

2024ko irailean, azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak, prezio konstanteetan, eta urtetik urterako balioetan, % 0,8 igo dira Araban eta % 1,9 Bizkaian; Gipuzkoan, berriz, % 0,5 jaitsi dira.

Aurreko hilarekin, hau da, 2024ko abuztuarekin alderatuta, salmentek % 0,7 egin dute gora Bizkaian eta % 0,3 Araban; Gipuzkoan, berriz, % 0,1 jaitsi dira.

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile-kopurua % 0,7 igo da 2023ko irailarekin alderatuta. Aurreko hilarekin alderatuta, langileen indizea % 0,6 jaitsi da.

2024ko lehenengo bederatzi hilabeteetan metatutako aldian, salmentek ez dute aldaketarik izan Euskal AE osoan. Lurralde historikoen arabera, Gipuzkoan % 0,3 igo dira, eta Bizkaian eta Araban berriz, bietan, % 0,2 jaitsi dira.

Sektoreen arabera, *Elikaduran* urte hasieratik salmenten metatuak % 0,4ko igoera izan du, eta *Gainerako produktuetan*, berriz, % 0,8ko jaitsiera.

INFORMAZIO-OHARRA

Urte arteko aldakuntzak, egutegiaren eraginak zuzendutako serieetan oinarrituta kalkulatu dira, eta hil arteko aldakuntzak urtaroen eraginik gabeko serieetan oinarrituta.

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritzaren indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Hilabete honetako indizea **% 100eko estaldurarekin** kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62